

# BIDANKOZARTE

Lege gordailu: NA 2365-2015

## Bidankozeko aldizkari historiko-kulturala

### Edukiak

- 100 orrialde ..... 1
- Duela 4000 urteko bidankoztarrak.. 1
- *Baltsako* bainu haiek ..... 2
- Hemen ere landatzen zen *maiatza*.. 2
- Bidankozeko bandera ..... 3
- *Diamantezko* bikote bat ..... 3
- Bidankozeko hiru *errekete* hilda (1937/06/11)..... 4
- Denetarik pixka bat ..... 4

Kontaktu: Gotzon Perez Artutx  
bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:  
www.vidangoz.com/bidankozarte/  
Facebook  
twitter.com/bidankozarte

### 100 orrialde

Orain dela sei urte data hauetan *Bidankozarte* izeneko argitalpen baten lehenengo zenbakia ikusi zuen argia.

Denboraldi honetan, gutxi gora-behera hiru hilabetetan behin, gure herriko kultura eta historiaren inguruko hainbat konturen berri eman dut, gai anitzak eta jarraitzaileen artean nork zuen gogokoenak izango dituzuenak.

Azken urtean zehar, gainera, gaien kopurua handitu egin da nolabait, ordura arte aldizkarian agertzen zirenen hormak zabalduz, eta honetan, dudarik gabe, eragin zuzena izan du *Bidankozarte Ekimenak* sare sozialetan egindako sarrera.

Nola edo hala, badira dagoeneko argitaratutako 100 orrialde, eta, momentuz, gure historia eta gure istorioak ezagutzera emateko gogoia nire honetan mantentzen dut.

Beraz, *Bidankozarte* luzerako izango dugu!



Xapateroko bordatik gertu, Arainen, harrizko txartatutako aizkora bat aurkitu zuten

### Duela 4000 urteko bidankoztarrak

Duela 45 urteko maiatzaren 21ean, mendizale batzuk *Lazatik* Bidankozera zeharkaldia egiten ari ziren. *Santa Barbaratik* jaisten, *Xapateroko bordatik* gertu (bertara iristeko 300 bat metro geratzen zitzaizkienean), *Arain* alderdian, ustekabeen historiaurrean erabiltzen zireneko ofitazko txartatutako aizkora bat aurkitu zuten. Ustekabeen diot haien esanetan ‘*aizkora inguruko harriekin erraz nahasten baitzen*’.


Data emateari dagokionez, urrutiko 1972 hartan zituzten datuekin (azken 45 urte hauetan arkeologiak izugarri egin duela aurrera kontua izan behar dugu) eta aurkitutakoa pieza bakarra zela azpimarratuz, beraz, testuingururik gabe, K. a. 2200 urtea ustezko jatorrizko datatzat ematen zuten. Ondorioz, badirudi dagoeneko


duela 4000 urte baino gehiago (eta ziur aski lehenagotik ere) gizakiok Bidankozera inguru honetan bizi izan gara.

Hau da Bidankozetik gertu aurkitutako historiaurreko ondare bakarra edo bakarrenetakoa (nik dakidanez, behintzat), baina *Santa Barbara* mendian aurkitutako ondare megalitikoekin (trikuharri eta tumulu batzuk) lotura izan dezake.

Aurkikuntzaren inguruko artikulua txiki bat aldizkari zientifiko batean argitaratu zuten. Honen inguruko gehiago jakin nahi duenak, *Bidankozarte*ko blogean begira dezake edo liburutegietan bilatu erreferentzia honekin:

Nolte Aramburu, E. (1974). Hallazgo de un hacha pulimentada en las cercanías de Vidángoz (Navarra), *Kobie Espeleología*, 5, 29-30.





## Baltsako bainu haiek

Udako beroarekin, argi dago uretan egotea dugula onena. Gaur egun *Ziberria* jarraitzen dugu izaten baina, nor ez da *baltsaz* oroitzen? Ze oroitzapenak eta zenbat une onak pasatu ditugu han!

Bada, gai honetan beste edozeinetan bezala, *euria ez da inoiz denon gustuko*, eta norbait *baltsan* bainatzearen aurkakoa izan behar zen. *Gerra Zibilak* bi urte bete berri zituenean, 1938ko uztailaren 20an, garaiko Bidankozeko apezak, Marcelino Murillo jaunak, *baltsako* bainuen immoralitatearen inguruko idazki bat helarazi zion alkateari, zera esaten zuena: '*Jakinak eta nabariak dira hiri honetako "errotako baltsan" gertatzen diren bainuak, eta haietan lotsa publikoko araurik oinarrizkoenak ere ez dira errespetatzen*'. Idazki oso-osorik *Bidankozarteko* blogean irakur dezakezue.

Esaten dutenez, apeza hori atzerakoi samarra zen, baina nik dakidanez, bere ondoren etorritako batzuei ere ez zitzaizkien gehiegi gustatzen *baltsako* bainuak arrazoi berarengatik.

Tira, eskerrak garaiak aldatu direla.


Bitxikeri gisa, ipinitako *baltsako* argazkian ez da agertzen herriko jendea ez baitut horrelakorik aurkitu, ziur aski zerbait guztiz arruntatzat ematen genuelako. Eskerrak *kolonietakoek* argazkiak egin baitzituzten bertan, eta horrela *baltsako* murgiltze horiek hilezkortu zituzten...

## Hemen ere landatzen zen *maiatza*

*Maiatzaren* lehenean, urtero bezala, *Langileen Nazioarteko Eguna* ospatzen da eta, dirudienez, guztiz bestelako arrazoiengatik, gure herrian ere antzinatik izan da jai eguna.

Kontua da XX. mendearen hasiera arte Bidankozen *maiatzaren* landaketa ospatzen zela, enparantzan enbor handi bat zutitzeko helburua zuen ekitaldia (ia ia literalki landatzen zuten). Ospakizun hau Nafarroako hainbat herritan bizirik dirau oraindik, esate baterako Murietan, Etxarri-Aranatzen, Bakaikun, Iturmendin...


Egia esan, nahiko ohitura zabaldua omen zen ez soilik gure inguruan, orokorrean Europa osoan zehar baizik. Gure inguruan, Bidankozeko Aiza-Bulguren kontu liburuetan aurkitutako erreferentziez gain, non urtero '*enparantzan Maiatza landatu dutenentzako freskagarria*' ordaintzeko partida txiki bat agertzen da, Izaban ohitura hori ere existitzen zela badut irakurria jarraian azaldutakoarengatik: 1612an, *Hiru Behien Zergan* entregatutako akastun behi batzuk ordezkatzeko, baldintzen artean, hiru eguneko epean '*Izabako enparantzan eta maiatza*' entregatu behar zirela adierazten zen, era honetan han ere *maiatza* landatzen zela eta, baita ere, enparantzan.



*Maiatza* Ataungo enparantzan (Gipuzkoa), 2015eko uztailan

Behin landatuta, *maiatza* oraindik zehazten ez dakigun denboraldi batez zegoen enparantzan, baina adituen ustez *Maiatzako gurutzetik* (*maiatzaren* 3tik) *Gurutze Santuaren* egunera arte (irailaren 14ra) luzatuko zen, eta horren alde dugu uztailaren erdian (*Hiru Behien Zerga* uztailaren 13an ospatzen da) Izabako *maiatza* zutik zirauelako lekukotasuna.

Lerro hauen gainean dagoen irudia *Atauneko* (Gipuzkoa) da, *maiatza* 2015eko uztailaren 12an oraindik zutik zuena, eta Etxarri-Aranatzekoak (*maiatza* landatzeko egunean, 1999ko *maiatzaren* 1ean).



*Maiatzaren* landaketa Etxarri-Aranatzen 1999an

Bidankozeko Aiza-Bulguko XIX. mende amaierako kontuak, *maiatza*-ren landaketa aipatuz



# Bidankozeko bandera

Ekainaren hasieran Iruñean 'Nafarroako banderaren defentsan' lelopeko manifestaldi bat egon zen.

Bada, banderen harira, Bidankozek badu ere istorio bitxi bat.

Erronkaribarrak, berezko *Ikurren Legerik* ez izan arren, antzinatik nonnahi ezaguna zen armarría eta bandera izan baditu. Horrela, alde batetik, Erronkaribarreko auzoko guztiek erronkariartzat erakusten zien armarría erabiltzeko eskubidea zuten hala eskatuta eta, bestalde, bai Erronkariko Batzordeak bai osatzen duten zazpi hiriek, denek bandera berbera erabiltzen zuten.

Bada, hemen dator *gaiaren mamia*.

Kontua da oraindik aurkitu ez dudan arrazoi batengatik, Bidankozeko bandera ez da Erronkaribarreko gainerako herriena bezalakoa: Erronkariko bandera koloreanitza izan ordez, Bidankozekoa atzealde gorri besterik ez du.

Aspaldi liburu batean zera irakurri nuen, Bidankozeko bandera 'frantsesada'n (*Independentziako Gerran*) suntsitu zutela, baina bestelako xehetasunetan ez zen sartzen. Gatazka horretan erronkariarrok paper nabarmena izan genuen, eta baliteke bidankoztarrak parte hartu zuten batailetakoren batean bandera kalteak jaso edota gudu-zelaietan bertan geratzea.

Beno, banderaren desagerepenaren inguruko bertsio hau ez dakigu egiazkoa ote den, baina zergatik ez zen berri bat egin jatorrizkoaren diseinu berarekin (azken finean hori baita ibarreko herrien ezaugarri)?

Bururatsen zaidan azalpena hau da: Kontuan hartuta gaur egun udaletxean dagoen bandera duela 100 urte baino

Bidankozeko bandera, Erronkaribarreko gainerakoekin alderatuta, guztiz bestelakoa



AYUNTAMIENTO DE VIDANGOZ

gutxiagokoa dela (atzeko partean dagoen Nafarroako armariaren diseinuarengatik), eta ikusita Nafarroako banderaren atzealdea gorri dela, nire ustez Bidankozek emandako uneren batean ez zuten jatorrizko banderarik izango eta beharko zuten, eta diru falta dela eta edo batek daki zergatik, bazuten Nafarroako bandera berrerabili eta bere atzeko aldean Bidankozeko (hau da, Erronkaribarrekoa) armarría eta 'Ayuntamiento de Vidángoz' leloa bordatu.

Nola edo hala, gure banderaz harro gaude erronkariarrok. Eta gure ikur hori goraiatzeko ez dago Andoni Iribarren *mitikoak* egiten zuten *Erronkaribarreko banderaren dantza* bezalakorik [Patxi Mendibururen bideoa]: <https://www.youtube.com/watch?v=oa1aUU0s7WM>

Andoni Iribarren Erronkaribarreko bandera dantzatzen



## Diamantezko bikote bat

Hemerotekan bi albiste bitxi aurkitu ditut Bidankozek sekula ezagutu duen bikoterik iraunkorrenetako baten inguruan: Constanza Pérez Sanz [Santxena] e Isidro Urzainki Pérez

[Kostiol / Santxena].

Lehenengo aipua 1932ko maiatzaren 20ko *Diario de Navarra*koa da (lerro hauen ezkerrean), eta bertan Isidro eta bere gurasoek egindako ezkontzeko mandatuen berri ematen da, *Kostiol* eta *Santxena* familien maila azpimarratuz.

Bigarren agerpena 60 urte beranduagokoa da, 1992ko uztailaren 1eko, orain dela 25 urte eta *Diario de Navarra*n ere. Albistea, kasu honetan, Constanza eta Isidoren arteko ezkontzako 60. urteurrena zen, hau da, *diamantezko ezteiak*, Botin ohiko ezizenarekin Don Nicolasek idatzitako artikulu batean.

Artikulu biak osorik irakur ditzakezue *Bidankozarteko* blogean.



### Vidangoz

Boda próxima

Por don Angel Urzainqui y doña María Cruz Perez, vecinos de esta villa y para su hijo don Isidro, ha sido solicitada la mano de la bellísima señorita Constanza Pérez Sanz, hija de don Dámaso y doña Francisca, de la misma localidad.

La boda se celebrará en la primera quincena de Junio y promete ser un acontecimiento, dada la significación de ambas familias.

Entre los novios se han cambiado valiosos regalos.

Vaya nuestra enhorabuena por adelantado.

## Bidankozeko hiru *errekete* hilda (1937/06/11)

### Los que mueren por la Patria



ANTONIO LARREA y PASCUAL URZAINQUI, requetés de la M. N., de Vidangoz, murieron gloriosamente por Dios y por la Patria en el frente de Vizcaya el día 11 de Junio a los 21 años de edad.

Diario de Navarra 1937/07/15

Duela 80 urteko udako atarian, azken gerra zibilak urte bat betetzear zegoen. 'Tropa nazionalek' Iparreko Fronte delakotik egiten zuten aurrera. Armada horretan *Montejurrako Tertzioa* osatzen zuten hainbat *errekete* bidankoztar bazeuden: Antonio Larrea Miguéliz (*Xapatero*), Dionisio Maio Urzainki (*Rakax*), Pío Ornat Jimeno (*Ornat / Zinpintarna*), Eusebio Pérez Goienetxe

(*Diego*), Cecilio Pérez Sanz (*Santxena*), Abundio Sanz Sanz (*Danielna*), Juan Urzainki Pérez (*Kostiol*) eta Pascual Urzainki Hualde (*Lengorna*).

1937ko ekaina hartan, Durango menderatu ondoren, *erreketeek* Bilbo hirian zuten hurrengo helburua. Hara iristeko, *Burdin Hesia* delakoa garaitu behar zuten, hiria matxinoen indarretatik salbu mantentzeko eraikitako defentsa sistema.

Ekainaren 11an Bizkaiko hiriburuari eraso bere azken atalean zegoen eta talka horietan, besteak beste, *Montejurrako Tertzioan* zeuden Bidankozeko zortzi *erreketeek* hartu zuten parte, eta *Oilarrako* (Galdakao) harresiak erasotzen haietako hiru hil ziren: Antonio Larrea, Juan Urzainki eta Pascual Urzainki.

Hiru bidankoztar hilda egun berean, ziur aski herrira iristean tristura handia sortuko zuen albistea.



Galdakako *Burdin Hesiko* zatiaren irudia *Galdakao Gogora* memoria historikoko elkarte eman da (*Bidankozarteko* blogean argazki gehiago ikus ditzakezue).



Bilboko *Burdin Hesia*, *Oilarraren* inguruetan

## Denetarik pixka bat

*Bidankozarteko* 23. zenbakitik, bedatseari zegokiona (udako alea *kolonien* inguruko monografiko bat izan baitzen), sare sozialetan (Facebooken eta Twitterren) gertatutako hainbat konturen berri ematen joan naiz, eta bertan haien inguruko gehiago irakur dezakezue.

Hasteko, *Nafarroako Itzulia* Bidankozetik igaro zen maiatzaren 27an, eta txirridulariek gure animoak sentitu zituzten *Igariko Gainerantzako* lehenengo maldan.

Ekainean 17an, berriz, eta *Igariko Gainean* ere, ohitura bihurtu den *Memoriaren Bideak* antolatutako *Frankismoko esklabuei omenaldia* ospatu zen, eta honekin 14. aldia da dagoeneko.

Hurrengo asteburuan, ekainaren 24an, *koloniak* Bidankozera itzuli ziren *Bidankozarteko* 24. zenbakian aipatu genuen jai giroko jardunaldi batean.

Ekainaren amaieran ere, 2016. urtera zegokion *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 90. zenbakian neuk (Gotzon Pérez Artutxek [*Peñeta/Ornat/Diego*]) idatzitako Bidankozeko 1855eko kolera izurritearen inguruko artikulu bat argitaratu zen. Aldizkari hori paperean *Nafarroako Gobernuo Argitalpen Funtsan* lor daiteke edota online [www.culturana Navarra.es/es/numero-90](http://www.culturana Navarra.es/es/numero-90) helbidean irakur dezakezue.

Uztailan, Bidankozeko sarrerak eraso sexisten aurkako kartel bat erakusten hasi zen eta hurrengo asteetan *Bintze ugaltza* hainbat tokitan lehortzen ikusi

genuen, baina pixkanaka bere onera bueltatzen ari da.

Eta abuztuan, xeien aurreko asteburuan, hitzaldi bikoitza izan genuen: *Bidankozeko flora eta paisaia bere toponimiaren arabera* eta *Etnobotanica misterioitsua: Errituak eta mitoak Erronkariko floran*, nik neuk eta Pablo Ordunak emanda. Hitzaldi honetan bertan, gainera, *Erronkari Iboxako Gida Etnobotanikoa* aurkeztu zen, Pablo Ordunak berak eta Virginia Pascualek egina.

Beraz, bedatse-uda nahiko denboraldi entretenigarria izan dugula esan dezakegu.

Urrieta garaia lasaiago izango dugu ziur aski, baina zeozer egongo da ere.